



FUNTSEZKO ELKARTEAK


Itunak:

Gure arteko itunak. bakoitzak baliabide bat jarriko du:

Ane: diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna.



Naime: webguneak sortzeko gaitasuna.



Leire: salmentarako abilezia, bezeroekin harreman onak hainbat komunikabideen bidez.



Idoia: Lehengaiak lortzeko gaitasuna, hornitzaleekin komunikatuz: tela, KILO dendan, haria, Mirari dendan, txuria, beltza eta haragi kolorekoa , kreamilera, Mirari dendan, .



Jaiar: Koordinatzailea, enpresaren funtzionamenduaz arduratzen da

Gure enpresa aurrera eramateko eta gainera etekin handiagoa ateratzeko, sostenekin zerikusia duen beste enpresa batekin aliatzea egokia iruditzen zaigu. Enpresa honek, bere sostenen marken izena daramaten gehigarri edo osagaiak hornituko dizkie gure erosleei. Aliantza moduko honek bi enpresei emango dizkigu irabaziak, eta bioi onurak ekarriko dizkigu.

Guk gure katalogoan, adibidez, gure sostenak erakusteaz gain beste enpresa honen zenbait produktu ere erakutsiko ditugu, barruko arroparekin zerikusia duten elementuak hain zuzen ere. Osagarri hauek, gure produktuaren ondoan saltzeagatik, gure bezero asko beste enpresa honetako produktuak erostera bultzatuko dituela espero dugu. Honek, alde batetik, aliatu garen enpresari onura ekarriko dio. Izan ere, honi esker, bere produktua bere kabuz patrozinatzearekin lortuko dituzten bezeroez gain, gure laguntzarekin erosle gehiagotara iritsi ahalko dira. Beste aldetik, aliantza honek guri ere onura handia ekarriko digu. Izan ere, beste enpresa honek guri esker saldutako produktuekin ateratako irabazien zati bat guretzat izango da, eta guk beraien izena erakusteagatik eta beraien produktua gure laguntzaz bezeroei eskaintzeagatik diru kantitate bat emango digu.

Nagusitasuna, noski, gure produktuari emango diogu eta hau izango da gehien patrozinatuko duguna. Webgunean eta katalogoan, adibidez, poltsikodun sostenari emango diogu garrantzi handiena, eta baita publizitatea egiterakoan ere. Webgunean eta katalogoan, hala ere, aliatu garen enpresa honen produktuak erakutsiko ditugu, gure atala baino txikiagoa izango dena eta garrantzi gutxiago emango dioguna. Publizitatean berriz, gure produktua bakarrik erakutsiko dugu, beste enpresako produktua saldu nahi dugunaren zati txiki baitelako.

